

Bazterrekoa
izatearen alde
onak

Stephen Chbosky

Argitaletxeko koordinatzailea: Aurelio Erdozain

Egilea: Stephen Chbosky

Itzulpena: Alex Aldekoa-Otalora Agirre

Bildumaren diseinua eta maketazioa: Luis Alonso

Liburu honek Eusko Jauriaritzaren laguntza jaso du.

Ale hau erabiltzeko eskubide guztiak erreserbatuta daude. Eskubide horien urraketa jabetza intelektualaren aurkako delitutzat har daiteke. Debekatuta dago testu osoa edo zati bat informatikoki erabiltzea edo hedatzea, aurrez baimen idatzia izan gabe. Zatiren bat eskaneatu edo fotokopiatzeko, baimena eskatu behar zaio ALAI ARGITALETXEA argitaletxeari (alai@alai.eus), alearen titularra den aldetik, edo CEDRO erakundeari (Centro Español de Derechos Reprográficos, www.cedro.org).

© 1999 by Stephen Chbosky
MTV Music Television and all related titles, logos, and characters are trademarks of MTV Networks, a division of Viacom International Inc.
All Rights Reserved.
Published by arrangement with the original publisher, MTV Books/Gallery Books, a Division of Simon & Schuster, Inc.

Argitalpen honena:
© 2020 ALAI ARGITALETXEA, SL

Jatorrizko izenburua:
The Perks of Being a Wallflower

ALAI ARGITALETXEA, SL
alai@alai.eus
www.alai.eus
ISBN: 978-84-120944-4-2
Lege-gordailua: D 301-2020
EBn inprimatua - Printed in EU.

Bazterrekoa izatearen alde onak

Stephen Chbosky

Itzulpena: Alex Aldekoa-Otalora Agirre

1. atala

1991ko abuztuaren 25a

Adiskide maitea:

Idazten dizut neska batek esan zidalako entzun eta ulertu egiten duzula, eta festa hartan ez zinela saiatu pertsona harekin lo egiten, aukera izan bazenuen ere. Mese-dez, ez ahalegindu neska nor izan daitekeen jakiten, ezen, orduan, beharbada, deskubritu egingo duzu nor naizen neu ere, eta benetan ez dut nahi halakorik egin dezazun. Izen ezberdinak edo izen orokorrak erabiliko ditut pertsonak aipatzen ditudanean, ez dudalako nahi ni nor naizen imajina dezazun. Horrexegatik ez dut niri erantzuteko helbiderik erantsi gutun honekin batera. Ez pentsa asmo txarrarekin egiten dudarik. Zinez diot.

Bakarrik jakin behar dut hor kanpoan dagoen baten batek entzun eta ulertu egiten duela, eta, aukera izanda ere, ez dela jendearekin lo egiten saiatzen. Jakin beharra daukat badagoela halako jenderik munduan.

Uste dut zeuk ulertuko zenukeela hori inork baino hobeto, ezen uste dut inor baino erneagoa zarela eta estimatzen duzula zer den bizitza. Horixe espero dut behintzat, beste batzuek zugana jotzen dute-eta indar eta adiskidetasun bila. Horixe entzun dut behintzat.

Beno, hauxe da nire bizitza. Eta jakinarazi nahi dizut aldi berean pozik eta triste nagoela, eta nola izan daitekeen hori posible deskubritzen nabilela oraindik.

Pentsatzen dut nire familia izan dela naizen modukoa izateko arrazoietakoa bat, batez ere joan zen udaberriko egun batean Michael nire lagunak eskolara joateari utzi eta Vaughn jaunaren ahotsa bozgorailutik entzun genuenetik:

—Neska-mutilok: pena handiz adierazi nahi dizuet zendu egin dela gure arteko ikasle bat. Michael Dobsonen omenez, agur-zeremonia bat egingo dugu eskolako bilzarrean datorren ostiralean.

Ez dakit nola zabaltzen diren albisteak eskolan zehar, eta zergatik diren benetakoak sarri-askotan. Beharbada, jantokian izango zen. Zaila da gogoratzea. Baina Dave be-taurreko arrarodunak esan zigun Michaelek bere burua hil zuela. Beraren ama *bridgear* zebilen jokoan Michaelen auzoko baten etxean, eta tiroa entzun zuten.

Ez dut ondo gogoratzen horren atzetik zer gertatu zen, baina bai anaia nagusia eskolara etorri zela, Vaughn jaunaren bulegora, eta esan zidala negar gehiagorik ez egiteko. Gero, bizkarrean ipini zidan eskua, eta esan zidan guztiz asaskatzeko aita etxera itzuli baino lehen. Gero, patata frijituak jatera joan ginen McDonald'sera, eta petakoen makinan jokatzeko erakutsi zidan. Txantxa bat ere egin zuen niri esker eskola-arratsalde bat galdu beharra izan zuela eta, eta galdetu zidan ea lagundu nahi nion bere Camaro autoan konponketa batzuk egiten. Imajinatzen dut porru eginda eta lur jota egongo nintzela, ordura arte sekula ere ez zidalako utzi Camaroan lan egiten.

Orientabide-saioetan, hitz batzuk esan genitzala eskatu ziguten Michael benetan estimatzen genuen apurroi. Uste dut beldur zirela gutako batzuk geure burua hiltzen-edo ahaleginduko ote ginen, orientatzaileek oso urduri zeudela ematen zutelako, eta haietako bat gelditu gabe ibili zen bizarra ukitu eta ukitu.

Bridget zoratuta dagoenak esan zuen suizidioaz pentsatzen zuela telebistan iragarkiak ematen zituztenean. Bena-benetan esaten zuen, eta horrek artegatu egin zituen orientatzaileak. Carl jende guztiarekin atsegina denak esan zuen oso triste sentitzen zela, baina ezingo lukeela bere burua hil, bekatua delako.

Orientatzaile jakin bat banan-banan pasatu zen talde osotik, eta azkenean txanda ailegatu zitzaidan.

—Zer diozu zuk, Charlie?

Egoera arraroa zen, ezen ni gizon harekin inoiz hitz egin gabe nengoen «berezilari» bat zelako, eta, hala ere, bazekien nire izena, nahiz eta, ikastetxea bisitatzeko egunean egiten duten ez bezala, paparrean ez neraman identifikazio-txartelik.

—Beno, nire ustez, Michael mutil jatorra zen, eta ez dut ulertzen zergatik egin zuen. Oso triste nagoen arren, uste dut ez jakiteak kezkatzen nauela benetan.

Irakurri berri dut hori, eta ez du ematen nire hitz egiteko modua denik. Batez ere bulego hartan, oraindik negar batean nengoen eta. Memento batean ere ez nion negar egiteari utzi.

Orientatzaileak esan zuen Michaelek «etxean problemak» zituen susmoa zuela, eta ez zuela norekin hitz eginik.

Beharbada, horrexegatik sentitzen zen hain bakarrik, eta horrexegatik suizidatu zen.

Orduan, garrasika esaten hasi nintzaion orientatzaileari izan zuela Michaelen nirekin hitz egiteko aukera. Eta are gogorrago hasi nintzen negarrez. Ni lasaitzen ahalegindu zen esanez irakasle baten edo orientatzaile baten moduko nagusi bat esan nahi izan zuela. Baina ez zuen funtzionatu, eta, azkenean, anaia etorri zitzaidan institutura bila Camaroan.

Ikasturtea amaitu arte, ezberdin tratatu ninduten irakasleek, eta nota hobeak ipini zizkidaten ni neu argiago bihurtu ez banintzen ere. Egia esanda, uste dut urduritu egiten nituela zeharo.

Michaelen hileta arraroa izan zen, haren aitak ez zuelako negarrik egin. Eta, hiru hilabete geroago, utzi egin zuen Michaelen ama. Behintzat, horixe esan zuen Davek bazkalorduan. Kontu horretan pentsatzen dut batzuetan. Neure buruari galdetzen diot zer gertatuko ote zen Michaelen etxean afaltzeko eta telebistako programak ikusteko orduetan. Michaelen ez zuen utzi inolako oharrik, edo behintzat gurasoek ez zioten inori halakorik ikusten utzi. Beharbada, «etxean problemak» izango zituen. Jakingo ahal dut. Beharbada, haren falta argiago sentitzea eragingo lidake. Beharbada, zentzu triste bat emango lioke egin zuenari.

Argi dut, ordea, honek neure buruari ea «etxean problemak» ditudan galdetzea eragiten diola, baina iruditzen zait jende mordo batek dituela neuk baino kontu eskasagoak. Esate baterako, arrebaren lehenengo mutil-laguna beste neska batekin irteten hasi eta arrebak asteburu osoa negarrez eman zuelakoa.

Aitak esan zuen:

—Askoz ere kontu eskasagoak ditu jende askok.

Eta ama isilik egon zen. Eta horixe izan zen dena. Handik hilabetera, arrebak beste mutil bat aurkitu zuen, eta berriro hasi zen disko alaiak ipintzen. Eta aitak lanean segitzen zuen. Eta amak erratza pasatzen segitu zuen. Eta anaiak Camaroa konpontzen segitu zuen. Beno, harik eta udaren hasieran unibertsitatera joan zen arte. Amerikar futboleant jokatzeko du Penn Stateko taldean, baina uda behar izan zuen notak igo eta futboleant ibiltzeko aukera izateko.

Ez dut uste gure familian «seme-alabarik kutunena» edo antzekorik dagoenik. Hiru gara, eta neu naiz gazteena. Anaia da zaharrena. Oso futbol-jokalaria ona da, eta asko gustatzen zaio bere autoa. Arreba oso ederra da, eta zitala mutilekin, eta erdikoa da. Nik orain Bikain ateratzen dut guztietan, arrebak bezala, eta horrexegatik uzten naute bake santuan.

Amak negar asko egiten du telebista-programekin. Aitak pila bat egiten du lan, eta gizon zintzoa da. Izeba Helenek esaten zuen aita harroegia zela berrogei urteetako krisia edukitzeko. Ez dut oraindik ulertzen zer esan nahi zuen horrekin, aitak berrogei urte egin berri dituen arren ez delako ezer aldatu.

Izeba Helen zen mundu osoko nire pertsonarik kutunena. Amaren ahizpa zen. Guztietan ateratzen zuen Bikain nerabe zenean, eta liburuak ematen zizkidan irakurtzeko. Aitak esaten zuen liburuak zaharkitu xamarrek zirela niretzat, baina niri asko gustatzen zitzaizkidan, eta, orduan, bizkarrari eragin eta irakurtzen uzten zidan.

Izeba Helen gurekin bizi izan zen bizitzaren azken urteetan, gauza txar-txar bat gertatu zitzaiolako. Inork ez zidan kontatzen zer gertatu zitzaion, nik beti jakiteko gogoia izan banuen ere. Zazpi urte-edo nituenean, galdetzea-ri utzi nion behin galdezka eta galdezka ibili nintzelako, umeez beti egiten duten bezala, eta izeba Helen negar batean hasi zelako.

Orduantxe eman zidan aitak belarrondokoa, esanez:

—Izeba Helenen sentimenduak ari zara mintzen!

Nik ez nuen halakorik egin nahi, eta ez nuen gehiago galdetu. Izeba Helenek esan zion aitari ni ez jotzeko berriro beraren aurrean, eta aitak esan zuen etxea berarena zela eta nahi zuen guztia egingo zuela, eta ama isilik geratu zen, eta anaia eta arreba ere bai.

Ez dut horixe baino gehiago gogoratzen, negar batean hasi nintzelako, eta, handik pixka batera, aitak agindu zion amari logelara eraman nintzala. Askoz geroago, baso batzuk ardo zuri edan eta gero, kontatu zidan amak zer gertatu zitzaion beraren ahizpari. Pertsona batzuek benetan askoz ere kontu eskasagoak dituzte nik baino. Benetan.

Seguruena, ohera joan beharko nuke orain. Oso berandu da. Ez dakit zergatik idatzi dudan hainbeste. Badut, baina, gutun hau idazteko arrazoi bat: bihar hasiko naiz institutuan, eta beldur naiz bertara joateko, benetan.

Estimu handiz,
Charlie

1991ko irailaren 7a

Adiskide maitea:

Ez zait institutua gustatzen. Kafetegiak «Nutriziogunea» du izena, eta arraroa baino arraroagoa da hori. Susan izeneko neska bat dago nirekin Literatura Aurreratuko ikasgaiari. Eskolan, oso dibertigarria izaten zen Susanekin egotea. Filmak gustatzen zitzaizkion, eta Frank haren anaiak kaseteak grabatzen zizkion, musika izugarriarekin, gero gurekin konpartitzen zituenak. Baina udan hortzetako aparatua kendu diote, eta hazi eta edertu egin da, eta koskortu egin zaizkio titiak. Orain, kankailona baten moduan ibiltzen da korridoreetan, batez ere mutilak badabilta inguruan. Eta pentsatzen dut tristea dela, ez du ematen-eta Susan lehen bezain pozik dagoenik. Egia esaten badizut, ez zaio gustatzen Literatura Aurreratuko ikasgaiari dabilela aitortzea, eta dagoeneko ez zaio gustatzen korridorean «aupa» esatea niri.

Susane, Michaeli buruzko orientabide-bileran egon zenean, kontatu zuen Michaeli behin esan ziola bera zela munduko neskarik ederrena, ahoko aparatuekin eta guzti. Orduan, Michaeli eskatu zion berarekin «buelta bat ematera» joateko, eta hori aurrerapauso handizat hartzen da edozein eskolatan. Institutuan «norbaitekin irten» esaten diote. Eta musu eman zioten elkarri, eta filmei buruz hitz egin, eta Michaelen falta izugarria zuen, lagunik handiena Michaeli zuelako.

Bitxia da, gainera, ezen, normalean, neskak eta mutilak ez direlako lagun-minak izaten nire eskolan. Michaeli eta Susan, baina, izan ziren. Pixka bat ni eta izeba Helen bezalakoak. Barkatu. «Izeba Helen eta ni bezalakoak». Aste